


# Audit Akularreko erraldoia

Donostiako Udalak Audit Akularren egin nahi duen proiektua aurkeztu zuen ekainean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikerketa batean oinarrituta, Udalak 3.000 bat etxebizitza eta industrialde batzuk egiteko asmoa du Altza eta Pasaia artean dagoen inguru honetan. Altzako hainbat elkarte eta herritar, ordea, ez daude ados egitasmoarekin, beraien ustez, proiektuak arazoak areagotu egingo baititu.

Raul Perez.

Argazkia: Imanol Otegi

**m**artxoan Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Sailak Molinaoko ibarbidea eta haren inguruari buruzko ikerketa aurkeztu zuen. Ikerketa horren arabera, Pasaia eta Altzaren arteko eremuan aldaketa sakonak egin behar dira, azpiegitura falta eta ingurugiro arazoak



Goiko mapan, Audit Akularreko egitasmoaren ardatz nagusiak ikus litezke.

direla eta. Proiektu osoak hainbat egitasmo biltzen du, baina nagusia Audit Akular auzo berria sortzea da.

Udalak, ikerketa horretatik abiatuta, egin duen proiektuaren arabera, Audit Akularrek 2.600 etxebizitza izango lituzke, hauek 1.690 babes ofizialekoak. Donostiako hirigintza lanik handiena izango litzateke, Intxaurren eta Benta Berrin egindakoen aurretik.

Etxebizitza kopuru handi hau eraikitzeko, 1995eko Plan Orokorra aldatu beharko litzateke, Izan ere, plan

horrek dio Audit Akularren 800 etxebizitza besterik ezin direla eraiki. Horrez gain, Audit Akularretik gertu dagoen Luzuriaga industrialde ohian ere 70 etxebizitza berri egiteko asmoa dago.

**la 3.000  
etxebizitza  
egin nahi dira  
Audit  
Akularren**

**Industrial gune  
berriak**

Udalaren proiektuaren arabera, etxebizitzek ezezik, industriak ere tokia izango luke auzo berrian. Landarron

industrialde berri bat eraiki eta Papin deitutakoa berritu egingo litzateke. Papin-en gaur egun enpresa txikiak eta tailerrak ari dira lanean, baina dena den, ikerketaren arabera, eremuak berrikuntzak behar ditu, eraikin batzuk oso egoera kaskarrean daude eta. Landarroko proiektuak, berriz, 60.000 metro karratuko lursaila bideratuko luke industria ihardueretara.

### Berdegunak eta errepideak

Auditiz Akularreko hirigintza egitasmoak bestelako aldaketak ere ekarriko lituzke. Alde batetik, hiru hektareako parkea egin nahi da Miravalles baserriaren magalean, eta horrez gain, Altzako Institutuak, Oletako ikastetxeak eta kiroldegiak lursail gehiago hartzeko aukera izango lukete. Bestetik, errepide sarean ere aldaketa sakonak izango lirateke. Errenteriako saihebidia eta A-8 autobidearen arteko lotura zuzena izango litzateke, esaterako, eta bidesaria kendu eta errotonda batek trafikoa bideratuko luke.

### Herri ekimena proiektua geldiarazteko

Esan bezala, Udalak proiektuaren lehen aurrerapena aurkeztu zuen ekainean. Dena den, Altzako herri-

**Herri ekimenak Plan Orokorra osorik berriro aztertzea eskatu du**

# Alderdi politikoaren iritzia

## Jorge Letamendia (PSE-EE)

*"Auditiz Akularreko Donostian inoiz egindako hirigintza lan handiena izango litzateke zalantzarik gabe. Alderdi politiko guztiek etxebizitzaren arazoa konpondu behar dela diote eta horregatik, hasieratik aurkako jarrerak ikustea onartezina da. Proiektu hau onuragarria izango litzateke Altzarentzat, azpiegituretan eta errepideetan hobekuntza nabarmenak ekarriko lituzkeelako. Horrez gain, auzo berriak industrialde zaharren lekua beteko luke.*

*Ingurugiroari dagokionez, Altzak ez luke berdegunerik galduko; auzoak 26 hektareako parkeak izango lituzke".*



## Enrique Arana (EA-EAJ)


*"Plan Orokorra ezarritako etxebizitza kopurua gainditzea begi onez ikus dezakegu, baina Udalak egindako bidea ez zaigu bidezko iruditzen Alza eta Pasaia inguruetan egin nahi den lan honetarako Plan Orokorra osorik berraztertu beharko litzateke eta ez soilik zatika. Bestalde, gure ustez, alderdi sozialistak, Auditiz Akularrekin, beste auzo batzuetako proiektuak, Morlansekoa esaterako, aurrera ateratzeko dituen oztupoak ezkutatu nahi ditu".*

## Miren Zinkunegi (EH)

*"Proiektuaren tamaina eta hainbat alorretan eragin ditzakeen aldaketak kontutan hartuta, Udalak korrika eta presaka egin du aurkezpena, gaia behar den bezala aztertu gabe. Ados gaude Donostiako arazo nagusietakoa etxebizitzarena dela, baina gure ustez, Auditiz Akularreko proiektuak Donostiak duen berdegune bakarrenetakoa kaltetuko luke. Horrez gain, Udalak alztzarren iritzia kontutan hartu beharko lituzke, auzo berriak arlo guztietan, soziologikoa barne, eragin nabarmena izango duelako".*



**OHARRA:** PPren iritzia biltzen ahalegindu garen arren, ez dugu erantzunik jaso.



## Baserriak, bilakaeraren lekuko

**a**ltza herria ala Altza Donostiako auzoa. Hauxe izan zen XX. mendearen hasieran Altzako biztanleen artean pil-pilean zegoen eztabaida. Erreferenduma bidez altzatarrak Altzak herri izaerari eta nortasunari eustearen alde agertu ziren. Hala ere, 1936ko Espainiako Gerraren ostean, Donostiak Altza hartu zuen bere baitan. 60ko hamarkadan etorkin asko iritsi zen Altzara eta batez ere Arrizar eta Arriberri

auzunetan egindako etxeen ondorioz, ikaragarri zabaldu zen.

Altzan etxe eta hiri zabalkundetik at geratu den eremu bakarrenetakoa Auditx Akular izan da. Orografia gorabeheratsuko eremu honetan baserriak daude, Auditx, Kastillun eta Akular, besteak beste. Baserriok duela 400 bat urte eraiki ziren. Udalaren proiektuaren arabera, lanek ez lukete hutsik dagoen Auditx baserria ukituko. Kastillun eta

Akular baserrietan lanean ari diren familiek ordea, ez dituzte beren lurrak utzi nahi. Egitasmoak baserri hauek eta inguruko lurrak mantentzea aurreikusitako eta ustiapenarekin lotutako zehaztasunak dira jabeek udal ordezkariekin eztabaidatu beharrekoak. Dena den, zenbait herritarrek diotenez, baserriok, etxez inguratuta, nekez eutsi ahal izango diote egungo iharduerari.

tar talde batek helegiteak aurkeztu ditu eta ildo beretik, Altza XXI. Mendean izeneko Herri Ekimena sortu du. Elkarte honetako kideen aburuz, «egitasmoaren arabera, Altza Donostiako arazoak

*konpontzeko erabiliko litzateke berriro ere, Altzan dagoen azpiegitura falta eta bizi kalitate eskasa kontuan hartu gabe».* Auditx Akularrek 10.000 eta 12.000 biztanle bitarte eta 3.000 kotxe inguru ekarriko litzuzke Altzako inguruetara. Beraz, Herri Ekimenaren esanetan, «egungo egoera larriagotu egingo litzateke».

Horrez gain, Herri Ekimenekoek diotenez, Auditx Akular bezalako proiektu handi bat aurrera eramateko, Plan Orokorra osorik berriro

aztertu behar da ezinbestean. Hala ere, Udalak zati bat besterik ez duela aldatu nahi diote: «egitasmoak plana berriro aztertzea eskatzen du derrigorrez. Udalak jakin badaki azterketak prozesua asko luzatuko lukeela eta proiektua legegintza honetan aurrera atera nahi duenez, uko egin nahi dio azterketari».

### Prozesu luzea

Auditx Akularreko hirigintza proiektua hasi besterik ez da egin. Udalak egitasmoa-

ren aurrerapena aurkeztu zuen ekainean eta Herri Ekimeneko kideak helegiteen erantzunen zain daude. Hurrengo pausoa Udalbatzarren osoko bilkuran egitekoa den eztabaida da, eta ondoren, helegiteak aurkezteko epea zabalduko litzateke berriro ere. Proiektua berriro eztabaidatu beharko luke Udalbatzarrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari igorriko litzazieke. Azken batean, beraien esku dago behin-betiko erabakia.

**Eusko**

**Jaurlaritzak  
eta Aldundiak  
dute azken hitza**